



Arartekoaren 2018S-460-18 EBAZPENA, 2018ko abenduaren 14koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradoki diogu enpleguan borondatez baja emateko arrazoi justifikatuak daudelako diru-sarrerak bermatzeko errenta azkentzearen ebazpena ikuskatzea.

Aurrekariak

1. Arartekoak herritar batek aurkeztutako kexa izapidetzeko onartu zuen. Interesdunak erakunde honen esku-hartzea eskatu zuen, ados ez zegoelako Lanbidek emandako ebazpen batekin. Ebazpen haren bidez, erakunde horrek diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea iraungitzat jo zuen.

2017ko martxoaren 23an ebatzi zuen Lanbidek kexagile andeari prestazioaren iraungitzea, arrazoi hau emanda: *"Borondatez, lanaldi murriztua edo antzeko egoera izatea"*.

Kexagileak azaldu zuenaren arabera, 2016ko urriaren 10ean, (...) garbiketa-entresa batean hasi zen lanean. Enplegu babestua zen, hau da, herritar horri laneratzen laguntzea zuen helburu. Aitzitik, interesdunak adierazi zuen, berak duen buruko nahasmenduaren eraginda, lanean hasi eta hamar egunera lanpostua utzi behar izan zuela.

Gaiari eutsiz, erakunde honetan abiarazitako kexa espedientetik ondorioztatzen da kexagileak buruko nahasmendu kronikoa duela (2012a baino lehen diagnostikatu zioten); hala egiaztatzen du Arabako Osasun Mentaleko Sareko Errehabilitazio Komunitarioko Zerbitzuak.

Gainera, kexagileak 2017ko apirilaren 5ean Lanbideren azkentze ebazpenaren aurka berraztertze errekurtsoa jarri zuen eta, xede horrez, Osakidetzaren eta, zehazki, Arabako Osasun Mentaleko Sarearen txosten medikoa aurkeztu zuen.

2. Aurkeztutako kexari dagokion izapidetzea emate aldera eta gaiaren xehetasunak argitzeko, erakunde honek informazio eskari bat egin zion Lanbideri. Era berean, erakunde honek, alde zuzenetik eta argiketen zain, hainbat gogoeta bidali zuen eta ez errepikatzeko ondoren idatziko dira.
3. Beste aldetik, espedientearen izapidetzean, Lanbidek zuzendari nagusiaren txosten batez honakoa erantzun zion Arartekoari: *"Borondatez, lanaldi murriztua edo antzeko egoera izatea"*.

Ondorioz, 18/2008 Legeak, abenduaren 23koak, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko denak, 19.2.b) eta 28.1.i) artikuluetan xedatutakoari jarraiki, Lanbideren ustez, kexagileak enplegu egokian bere burua borondatez baja eman du arrazoi justifikaturik gabe. Horregatik, Lanbidek ausazko berraztertze errekurtsoa ezetsi zuen.





4. Azkenik, erakunde autonomoak erakunde honi jakinarazitakoaren arabera, kexagileari 2018ko apirilaren 5etik aurrera, hau da, zigorraren urtebetea igaro ostean, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskubidea onartu zion. Horretarako, prestazioa berriz eskatu zuen.

Gogoetak

1. Lehenik eta behin, Lanbideren iritziz, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean borondatez baja eskatu zuenez, 18/2008 Legeak, abenduaren 23koak, diru sarrera bermatzeko eta gizarteratzeko denak, xedatutako eskakizunak eta, zehazki, 19.2.b) artikuluan zehaztutakoak ez ditu bete. Ondorioz, 4/2011 Legeak, azaroaren 24koak emandako idazkeran aurreko legeak (aurrerantzean, 18/2008 Legea) 28.1.i) artikuluan xedatutakoan oinarrituta, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskubidea azkentzen da eta interesdunak azkentze-egunetik zenbatzen hasita, ezingo du urtebetez prestazioa eskatu.

18/2008 Legeko 28.1. artikulua i) letrak ezartzen du arrazoi honek diru-sarrerak bermatzeko errenta azkentzea ekar dezakeela: *"behin uko egitea, arrazoi justifikaturik gabe, indarreko legediaren arabera egokia den enplegu bati edo diru-sarrerak handitzea ekar lezakeen lan-baldintzen hobekuntza bati"*⁸¹.

Hala ere, diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema erregulatzen duen araudi autonomikoak ezartzen du zer hartu behar den *"arrazoi justifikatuzat"*, herritarrei diru-sarrerak bermatzeko errenta ez iraungitzeko enplegu bati uko eginez gero.

Aztergai dugun gaian, aztertu beharra dago buruko nahasmendu kroniko batek oinarritzko prozesu psikologikoetan eragindako alterazioek eta kalteek ez ote duten justifikatzen kexagileak lanpostua utzi izana.

"Kausa justifikatua" modu desberdinetan interpreta daiteke, gizarteratzeari buruzko araudian ez baitago idatzia noiz ulertu behar den enpleguari modu justifikatuan uko egin zaiola. Ildo horri eutsiz, lege-kontzeptu zehaztugabea izenekoaren aurrean gaude. Beraz, kontzeptu abstraktu bat da, modu zehatzean mugatu ez dena, kasu zehatz bakoitzaren egoerei moldatutako konponbideak baimentzen dituen.

Jakina denez, administrazio-ahalmenak arautuak eta aukerakoak izan daitezke, arauarekiko euste-mailaren eta administrazio-organo eskudunak duen erabakitze-tartearen arabera. Horregatik, aipatu egoeran balioztatutako beharko litzateke diru-sarrerak bermatzeko errenta azkentzearen erabakiak enplegua ukatzeko arrazoi justifikatuzat jotzeko hautemate-tartearen mugak ez al dituen gainditzen.

¹ Azpimarra Arartekoarena da.

Nolanahi ere, lege-kontzeptu zehaztugabeak aplikatzean, administrazioak egoera berezi bakoitzean indarreko legezketasuna aplikatu behar du, bere aginduen artean baitago *"interés orokorrek objektibotasunez zerbitzatzea"*, Espainiako Konstituzioak 103. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Legea eta zuzenbidea guztiz betetzean administrazioaren jarduna kontrolatzea ahalbidetuta dago, zuzenbideko printzipio orokorretarako.

Ildo horri eutsiz, Auzitegi Goreneko 2006ko maiatzaren 29ko epaia (Hirugarren Sala, 1. Sekzioa) zentzu horretatik doa, hamaseigarren lege-oinarrian zuzenbideko printzipio orokorren bidez administrazio-jardunaren mugak azpimarratzean:

"[...] Al menos, son siempre elementos reglados por la Ley, aun en los actos producidos en el ejercicio de una potestad discrecional: el hecho de su existencia misma (esto es si la potestad ha sido atribuida por la norma o no), su extensión o ámbito (esto es, los casos condiciones bajo los que puede ser utilizada), la competencia (esto es, la determinación del órgano u órganos a que se atribuye) y el fin (es decir, la finalidad concreta que debe satisfacer el acto que tendrá que ser necesariamente, una finalidad pública). Aunque "la discrecionalidad es, esencialmente, un libertad de elección entre alternativas igualmente justas, o si se prefiere, entre indiferentes jurídicos porque la decisión se funda en criterios extrajurídicos (de oportunidad, económicos, etc.) no incluidos en la Ley y remitidos al juicio subjetivo de la Administración", no debe olvidarse tampoco que esta indiferencia no es total, sino relativa, pues la decisión que se adopte deberá respetar, en todo caso, los principios constitucionales básicos (entre ellos el principio de interdicción de la arbitrariedad de los poderes públicos, proclamado en el artículo 93 de la Constitución) y los propios principios generales del Derecho, los cuales informan todo el ordenamiento jurídico (artículo 1.4 del Código Civil) y también por tanto, la norma habilitante que atribuye la potestad discrecional, como así lo exige también "el sometimiento pleno a la Ley y al Derecho" que la Constitución (artículo 103.1) impone a las Administraciones Públicas".

Erakunde honen iritziz, Lanbidek *"kausa justifikatuaren"* nozioa antzeman duenean ez du arrazoizko konponbiderantz jo, 18/2008 Legeak, abenduaren 23koak, diru-sarrerak bermatu eta gizarteratzeko denak, xedatzen duenaren arabera, enplegua oinarririk gabe ukatzen denetan diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskubidea azkentzearekin lortu nahi den helburuari erantzuten ez dion neurrian. Kexagileak nahasmendu mental kronikoa duela egiaztatu du eta behar bezala balioztatu beharko litzateke hori. Horrez gain, enpleguan borondatez baja ematean, nahikoa garrantzitsua da kausa justifikatua dela zehazteko. Aipatu bezala, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak lan-merkatuan sartzea saiatu ondoren eman zen baja enpleguan. Nolanahi ere, bere osasun mentalak okerrera egin zuen eta hasi ostean, hamar egunera lanpostua utzi behar izan zuen.

Era berean, edozein administrazio-ekintzaren arrazoitzea administrazioaren ahalmena kontrolatzeko funtsezko elementua da, baita fiskalizazioa ahalbidetzeko eta pertsonen babesgabetasuna saihesteko oinarriko baldintza ere. Auzitegi Goreneko 5. Salaren 2005eko martxoaren 23ko epaia aipatu daiteke, arrazoitzearen inguruan honakoa adierazi duena:

"La exigencia de motivación de los actos administrativos constituye una constante de nuestro ordenamiento jurídico (...) teniendo por finalidad la de que el interesado conozca los motivos que conducen a la resolución de la Administración, con el fin, en su caso, de poder rebatirlos en la forma procedimental regulada al efecto. Motivación que, a su vez, es consecuencia de los principios de seguridad jurídica y de interdicción de la arbitrariedad enunciados por el apartado 3 del artículo 9 la Constitución (CE) y que también, desde otra perspectiva, puede considerarse como una exigencia constitucional impuesta no sólo por el artículo 24.2 CE sino también por el artículo 103 (principio de legalidad en la actuación administrativa) (...) En este sentido, se ha venido destacando tanto por la jurisprudencia como por la doctrina, la estrecha conexión entre el requisito de la motivación y el derecho de defensa. Pero la exigencia de motivación no se reduce a esa conexión. La obligación de motivar no está prevista sólo como garantía del derecho a la defensa de los ciudadanos, sino que tiende también a asegurar la imparcialidad de la actuación de la Administración así como de la observancia de las reglas que disciplinan el ejercicio de las potestades que le han sido atribuidas".

Gainera, herri-administrazioen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35. artikularen arabera, eskubide subjektiboak do legezko interesak mugatzen dituzten administrazio-jardun guztiek zuzenbide egitate eta oinarrien erreferentzia laburra izan behar dute. Diru-sarrerak bermatzeko errenta azkentzeari buruzko ebazpena arrazoitzean, ordea, bakarrik *"lanean borondatezko baja"* aipatzen da.

2. Bestalde, beste espediente batzuetan bezala, Lanbidek ez du onartu errekurtsio-idazkiari erantsitako dokumentazioa eta hori lehenago aurkeztu ahal izan dela dio.

Lanbideren jarrera horrek araudi hau du oinarri: urriaren 1eko 39/2015 Legearen, herri-administrazioen administrazio prozedura erkideari buruzkoaren, 118.1. artikuluko bitarren paragrafoa (39/2015 Legea aurrerantzean); haren arabera, *"ez da kontuan hartuko errekurtsogileak alegazioen izapidean aurkeztu ez duen errekurtsio, egitate, dokumentu eta alegaziorik, alegazioen izapidean aurkezteko aukera izan bazuen. Ezin eskatuko da frogak egiteko, orobat, ebazpen errekurritua eman zen prozeduran ez egin izana interesdunari inputa dakiokenean"*².

² Jatorrizko espedientean jasota ez dauden dokumentu berriak onartzeko muga hori indargabetutako herri-administrazioen araubide juridikoari eta administrazio-prozedura erkideari buruzko 30/1992 Legearen 112.1 artikuluan ere islatuta zegoen.

Baina, adierazi behar da administrazioak errezeloa daukala "elementu berriak" gehitzeari dagokionez, administrazio-jurisdikzioa soilik berrikusteko balio duen jurisdikziotzat hartzen zelako lehen. Izan ere, asko eztabaidatu da horren inguruan eta, gaur egun, esan daiteke zorrozki hartutako ideia formalista hori neurri batean deuseztatu egin dela.

Interpretazio-ildo horrek laguntzen du administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren izaera osoa finkatzen eta ildo horren behin betiko oinarria jasotzen da berriki emandako Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 5eko 23/2018 Epaian. Epaia horrek aipatzen du administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren izaera ikuskatzailearen irismen mugatua, besteak beste, honako hau zehaztuz: *"Auzitegi honen betebeharrak saihestezina da legeen aplikazio oro ezestea, pro actione printzipioa urratuta, lege-zaintzaren eskubidea ukatzen badute (STC 98/1992, ekainaren 22koa, FJ 3; ildo beretik, ATC 765/1984, abenduaren 5ekoa, FJ 3)".* Jurisdikzio-kontrolaren osotasun horrek, azkenik – Konstituzioaren 24.1 artikuluan ezarritako benetako babes judizialerako eskubidearen arabera-, ahalbidetu beharko luke bide judizialean aurretik alegatu ez ziren aurkatze-arrazoi berriak alegatzea. Gainera, horrenbestez, hori administrazio-bideko aurkatze-egiturari aplikatu ahal zaio, hots, prozedura nagusiari dagokionez.

Hain zuzen ere, Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salak 2010eko martxoaren 17ko epaian aitortu zuen mota guztietako elementuak, egitateak edo dokumentuak gehitzeko zilegitasuna, baldin eta horrekin interes orokorrak hobeto bermatzen dituen erabaki bat hartzea ahalbidetzen den:

"Sexto.- El análisis de la pretensión impugnatoria debe comenzar precisamente por esta última parte de la resolución que acabamos de transcribir. En ella se sostiene una tesis errónea sobre la función de los recursos administrativos, a resultas de la cual no cabría introducir en éstos "elementos nuevos" sobre los que no hubiera podido pronunciarse el órgano que dictó la resolución impugnada.

Es errónea la tesis, decimos, y parte de una concepción no aceptable del "carácter revisor" de los recursos administrativos que difiere de la que preside los artículos 107 a 119 de la Ley 30/1992 (RCL 1992, 2512 , 2775 y RCL 1993, 246) , de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común . En contra de lo afirmado por la resolución que examinamos, es lícito introducir en los recursos de alzada o de reposición hechos, elementos o documentos nuevos, no recogidos en el expediente originario. La posibilidad está expresamente prevista en el artículo 112.1 de la Ley 30/1992 (e implícita asimismo en el apartado tercero del artículo 113) y es coherente, por lo demás, con la función propia de estos mecanismos de revisión de la actividad administrativa.

Los recursos administrativos, además de garantía para los administrados, son también un instrumento de control interno de la actividad de la Administración en la que un órgano superior -o el mismo, en reposición- revisa en toda su extensión lo hecho por otro, sin estar necesariamente vinculado al análisis de los meros elementos de hecho o derecho que este último hubiera tenido o podido tener en cuenta. Lo que se pretende con los recursos es posibilitar una mejor decisión que sirva con objetividad los intereses generales, y ello será tanto más factible cuantos más elementos de juicio se pongan a disposición de quien ha de decidir finalmente sobre la impugnación.

El órgano que resuelve el recurso no está constreñido por los solos datos presentes en la resolución originaria. Tras el acuerdo inicial pueden alegarse en vía de recurso administrativo hechos, elementos o documentos de todo tipo, también los de fecha posterior a aquél, si de ellos se deducen consecuencias jurídicas relevantes para la mejor resolución del expediente. El recurso administrativo, salvados los límites de la congruencia y la imposibilidad de gravar la situación inicial del recurrente (artículo 113 in fine de la Ley 30/1992), permite una reconsideración plena, sin restricciones, del asunto sujeto a revisión. Reconsideración en la que, insistimos, pueden alegar los impugnantes cualesquiera hechos o elementos de juicio, también los que no se pudieron tener en cuenta originariamente pero sean relevantes para la decisión final”³.

Hortaz, Auzitegi Gorenak ondorioztatu egin du “elementu berriak” gehitzeko aukerak administrazio-prozedura erkidea arautzen duen legean daukala araudi-babesa. Zehazki, jotzen du “beren-beregi aurreikusita” dagoela 39/2015 Legearen 118.1 artikulua lehengo paragrafoan⁴ (39/92 Legearen 112.1. artikulua ohia) eta “inplizituki” lege beraren 119.3 artikuluan⁵ (39/92 Legearen 113.3. artikulua ohia). Beraz, adostasun-printzipioa bermatuta eta kexagilearen egoera okertzea ezinezkoa denez, errekurtsua ezagutzen duen organoak espedientean zehar sortzen diren kontu guztiak ebatzi beharko ditu, interesdunak horiek alegatu dituen edo ez gorabehera.

³ Azpimarra Arartekoarena da.

⁴ 118.1 artikulua haxe xedatzen du lehengo paragrafoan: “*jatorrizko espedientean ageri ez diren egitate edo agiri berriak kontuan hartu behar direnean, interesdunei jakinaraziko zaie hamar egunetik gorako eta hamabost egunetik beherako epean, egokitzen jotzen dituzten alegazioak formulatu eta agiriak nahiz frogagiriak aurkez ditzaten*”.

⁵ Hala, 119.3 artikulua haxe xedatzen du: “*errekurtsua ebatzen duen organoak prozeduran planteatzen diren forma eta edukiari buruzko gaiez erabakiko du, interesdunak alegatu al dituen alde batera utzita. Interesdunek alegatu ez dituzten arazoan gainean ebatzi baino lehen, entzun egingo zaie interesdunei. Nolanahi ere, errekurtsu-jartzaileak eskatutakoaren harikoa izango da ebazpena, eta ezin izango du inoiz okerragotu haren hasierako egoera*”.

Ildo horri jarraiki, egokia da une honetan Auzitegi Gorenaren 2017ko apirilaren 20ko epaia (615/2016 kasazioa) aipatzea. Horretan, goi-mailako auzitegiak, 2010eko otsailaren 11ko (9779/2004 kasazioa), 2012ko ekainaren 20ko (3421/2010 kasazioa), 2015eko ekainaren 24ko (1936/2013 kasazioa) eta 2017ko apirilaren 20ko (615/2016 kasazioa) ebazpenek adierazitako doktrinan oinarrituta irmoki ondorioztatzen du bere laugarren lege oinarrian ondorengoa:

“Asistía, la razón a la parte recurrente en este caso para que la documentación acompañada con su escrito de interposición al recurso de reposición fuese valorada y tenida en cuenta a la hora de resolverse en vía administrativa, sin que su aportación en dicho momento fuese obstáculo insalvable para hacerlo. (...) si en vía económico-administrativa y en vía judicial es posible aportar la documentación que el actor estime procedente para impugnar una resolución tributaria, parece mucho más lógico que pueda hacerse antes en el discurrir procedimental y aportarse en el primero de los medios de impugnación que pueden ejercitarse”⁶.

Horrez gain, ematen du komeni dela adieraztea jurisprudentzia-doktrina honen araudi-oinarria dagoela administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 56.3. artikuluan. Zehazki, horrek interesdunari ahalbidetzen dio, demandarekin batera, eskuragarri daukan dokumentazio guztia aurkeztea bere eskubidea egiaztatze aldera. Araudixedapen horretatik abiatuta, Auzitegi Gorenak hurrengoa erabaki du: *“[...] si esto es así en vía jurisdiccional, con más razón debe ser así cuando la documentación se aporta en sede de recurso de reposición”⁷.*

Ildo beretik doa Auzitegi Goreneko Administrazio Auzietarako Hirugarren Salaren 1362/2018 Epaia, 2018ko irailaren 10ekoa, ikuskapen-bidean alegatu edo frogatzeko aukerari buruzko jurisprudentzia baieztatzean (FJ 3):

“[...] Consideramos posible, en efecto, que quien deduce una reclamación económico-administrativa presente ante los tribunales económico-administrativos aquellas pruebas que no aportó ante los órganos de gestión tributaria que sean relevantes para dar respuesta a la pretensión ejercitada, sin que el órgano de revisión pueda dejar de valorar –al adoptar su resolución– tales elementos probatorios. Todo ello, con una única excepción: que la actitud del interesado haya de reputarse abusiva o maliciosa y así se constate debida y justificadamente en el expediente.

La respuesta expresada es, obvio es decirlo, resultado de la configuración legal del procedimiento económico-administrativo y de nuestra jurisprudencia (que ahora confirmamos) en relación con la extensión y límites de la revisión, tanto

⁶ Azpimarra Arartekoarena da.

⁷ Véase, al efecto, la Sentencia del tribunal Supremo de 24 de junio de 2015 (recurso de casación 1936/2013).

en sede económico-administrativa, como en vía jurisdiccional, supuestos ambos en los que las facultades de los órganos competentes (administrativos en el primer caso, judiciales en el segundo) deben cabalmente enderezarse a la plena satisfacción de las pretensiones ejercitadas mediante la adopción de una resolución ajustada a Derecho en la que aborden todas las cuestiones – fácticas y jurídicas– que resulten necesarias para llegar a aquella decisión”

Halaber, Auzitegi Gorenak erantsitakoaren arabera, administrazio-ikuskapenaren mugak badira *“...una excepción al principio general de la plenitud de la cognición a efectos de dispensar debidamente la tutela pretendida, al comportamiento abusivo o malicioso debe constatarse debidamente en los procedimientos correspondientes y aparecer con una intensidad tal que justifique la sanción consistente en dejar de analizar el fondo de la pretensión que se ejercita”*.

Aurretik esandako guztiagatik, Arartekoak uste du ez dela okerra adieraztea, administrazioak dokumentazio zehatzaren berri badu, hau da, araudian aurreikusitako betekizunak betetzen direla modu frogagarrian egiaztatzen duen dokumentazioaren berri badu hori kontuan hartu beharko litzatekeela. Hala, errekurso-fasean hori aurkezteak ez luke eragin beharko dokumentazioa ez onartzea; are gehiago, halako ustezko batean. Baliteke nahasmendu mentalaren ondorioz ez aurkeztu izana. Hori horrela da, besteak beste, ezin delako bestela ulertu zaintza judizial eraginkorra izateko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 24.2. artikuluan xedatutakoa. Izan ere, artikuluko horren edukitik ondorioztatzen da interesdunaren interesak eta uziak defendatzeko behar diren frogabideak erabiltzeko eskubidea. Beraz, aurreko lerroetan adierazi den moduan, egoitza judizialean frogabide berriak erabili ahal badira, are zentzudunagoa da berraztertzeke administrazio-egoitzan aurkeztu ahal izatea.

Hirugarren gogoeta horretan azaldutakoari gehitu beharko litzaioke honakoa: printzipio antiformalistak gidatu behar du administrazioaren jarduketa oro eta horrek eskatzen du forma interes orokorren defentsaren eta bermearen menpe egotea.

3. Laburbilduz, kexagileak berraztertzeke errekursoaren fasean froga dokumentazio egokia aurkeztu zuen eta lan-baja izapidetu zenean txosten medikoa ez aurkezteagatik ez zitzaion onartu. Hori guztia horrela da bigarren gogoetan adierazitako jurisprudentzia-doktrina gorabehera, errekurso-fasean dokumentu berriak aurkeztea ahalbidetzen duena. Horrela, soilik ikuskapen-eginkizuna zuen administrazio-jurisdikzioaren doktrina klasikotik jurisdikzio bermatzaile batera eboluzionatzen da eta azkenengo horrek lotura estuagoa dauka Konstituzioaren 24. eta 103. artikuluekin.

Azaldutakoari erreparatuz, errekurso-bidean aurkeztutako agiria onar zitekeen. Horrez gain, edukia aztertuta, enplegua ukatzeko kausa justifikatua egon zela ondoriozta daiteke eta 18/2008 Legeak 28.1. artikuluko i hizkian aurrez ikusten du. Hala, azkentzeko arrazoirik ez zen eman. Egoera



honetan errekurtso-fasean aurkeztutako agiria onartu gabe eta bestelako egiaztapen- jarduerarik gabe azkentzeko arrazoia dagoela ulertzeak administrazio onaren printzipioari ez dio erantzuten. Aurrekoaren haritik doa Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietarako 2015eko azaroaren 3ko epaia (Rec 396/2014) bigarren lege oinarrian: “[...] Cabe significar que los principios de transparencia y buena administración exigen de las autoridades administrativas que motiven sus decisiones y que acrediten que se adoptan con objetividad y de forma congruente con los fines de interés público que justifican la actuación administrativa, tomando en consideración todas aquellas circunstancias que conforman la realidad fáctica y jurídica subyacente”. Subraya, asimismo, el Alto Tribunal que “el principio de transparencia y el deber de buena administración, cuyo carácter es imperativo y vinculante, se infiere del artículo 103 de la Constitución”.

Azaldutako guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Arartekoak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari honako iradokizun hau egin nahi dio:

Iradokizuna

Arartekoak Lanbideak diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa azkentzeari buruzko ebazpena ikuskatzea iradoki du, enpleguan borondatez baja emateko arrazoi justifikatua dagoelakoan.

